

GU'RE LURRA TA GU LURTARROK (II): LURRA SORTZEN

Gu bizi garan lur osoa ez da besterik izardiaren baztertxu baten dagoan auts-ale bat baiño.

Gaur dan lakoa izan baiño lenago eguzkiagaz bat zan eta andik banandu zanean izarbel biribil eta iziotu bat baiño ez zan eta gero beronegandik biraka ebillala ardazaren erpiñetik zati bat askatu zan eta abiadaren indarrak eraginda atzera biurtu-eziñeko leku baten eratu zan gaur jretar-ja dana.

Lurra asieran su utsa zan eta dana lurrun utsezkoa, baiña astiro-astiro otzituten joan zan eta lurrun ziranak otzagaz gorputz sendo biiurtu eta lurraren erdirantza joan ziran.

Orduan dana zan ekaitza, curia ta ikarea. Otza aundia-gotuz, lur-gaiñea lcor birtuten asj zan. Gero otz au barrura sartzen joian. Itxasberoaren gaiñean lur sendo erpiñak agertu ziran ugarte-antzera eta oneik alkartuta lur-az ala sortzen eben.

Orduan agertu ziran lenengo urezko euri beroak baiña lurra beroago egoan eta barriro lurrun edo laiño biurtzen zan ura. Eta lur-azala otzitu zanean, lenengo itxas aundia sortu zan.

Itxaso onek lur osoa estaldu eban eta "pantalasa" edo itxaso utsa esaten jako orreri. Asieran irakiten egoan baiña otza artzen joan zan. Asj ziran lur-zati batzuk agertzen eta ortxe amaitzen da kosmogonialdia, ortxe asten da aldi zarra edo arkaikoa. 3.500.000 urte igaro dira ordutik. Aldi orretan sortu ziran lenengo bizidunak.

Aldi aretako lurrik gaur ez da agirj jñon be gure Bizkaia'n. Laterri Batuetan dagoan Huron zingira da ordukoa.

"MENDIKO BASOAK ETA
BARRUTIAK EZ DOZUZ
ERREKO"

TAOSMOAREN 67N. AGINDUA

Len-aldia edo Era Primaria esaten jakonean pizti asko agiri dira: arrainak, tiburoiak...

Aldi onen barruan dago ikatz-aldia edo karbonifero deritxoña eta aldi onetan landaredia asko ugaritzen da eta beroagaz batera ura egoan ezkerro, zugatz aundiak sortu ziran gaur ekuador-aldian sortzen diran antzera.

Orreitatik sortuak dira gaur lurpean ikatz biurtuta dagozan meatz-toki aundiak: Ikatza ez da besterik zugatz aundien usteltze-ondorena baiño.

Mendiak sortzeko eragin bi izan ziran aldi luze onetan: Kaledonitarra bere mendi aundiakaz Europa erdian eta eskandinabian eta Ipar-Ameriketan Apalatxes mendiak sortu ebazan eta Ertzinianitarra: emen Galizia'ko mendiak eta Bizkaia'n be ikutu aundia izan eban.

Zelan egoan Euskalerra a Len-aldi onetan?: Dana zan itxaso sakona alboan Akitania'ko mendiak batean eta Asturias eta Ibero- aldeko mendiak bestean zirala. Barruan lenengo agertu ziranak Aia'ko mendiak eta Etxalar-Orreaga izan ziran.

ZUGATZ BAT SARTU
DAUANARENA EZ DA
ALPEREKO BIZITZEA

DANTE

Begiratu daigun astiroago Euskalerra osoa. Kantauri'tik Lurrarte eta Mediterraneo'ra dana estaltzen eban itxaso onek: 500 milloj urte iraun eban.

Itxas-azpian gai asko joiazan ezarten (sedimentasiñoaren bidez).

Itxaso onek gora-bera aundiak eukiten ebazan eta barruan bizi ziran arraiñen irudi arrituak aurkitzen dira gaur mendietan be bai: arrain txikiak, koralak, itxaskirikoak; aundiak, esaterako tiburoiak, narrazti aundiak, oneik iñoz amar neurki luze daukenak dira, batzuk egodunak ziran aidean ibilteko.

Guztiak galdu ziran bigarren aldi au amaitu zanean. Orduan asj ziran urte-aldiak agertzen: negua ta udea. ■

OLAZAR'tar Martin'ek